

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

Talde Popularreko bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udaltzaren Araudi Organikoaren 90. eta 91. artikuluan xedatutakoaren arabera, jarraian ageri den **TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA**ren inguruko **ARAU PROPOSAMEN** hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Gobernu-taldearen helburu nagusietako bat da ibilgailuen trafikoa bide publikoetatik kanporatzea. Datorren Donostia ekimeneko lehen pausoa izango da egoiliarak ez direnen kotxe eta motorrentzako sarrera mugatzea Erdialdean, baina helburua da eredu hori hiriko hainbat auzotara zabaltzea, donostiarrek ibilgailu pribatuan mugitzeko duten gaitasuna izugarri mugatuz, kontuan hartu gabe ibilgailua kutsatzailea den ala ez.

Donostia da trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga (zirkulazio-zerga) handiena duen Espainiako hiria, Bilbo, Gasteiz, Madril edo Bartzelona bezalako hirien oso gainetik. Datorren Donostia ekimenak gero eta gehiago mugatuko du Erdialdean edo Datorren Donostiara atxikitzen doazen auzoetan bizi ez diren herritarrek bertara iristea. Gure ustez, beraz, Altzako, Intxaurrendoko edo Aieteko bizilagun batek, adibidez, ez luke Erdialdeko bizilagun batek adina ordaindu beharko, ezin izango baitu hiriaren zati handi batean zirkulatu.

Donostiarrek ordaintzen duten trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga hirian benetan egin dezaketen erabilerarekin lotu nahi dugu.

Proposatzen dugu trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan % 15eko hobaria aplikatzea Erdialdera beren ibilgailu partikularrekin mugarik gabe sartu ezin diren donostiar guztiei. Hobari hori % 10 areagotuko da Datorren Donostiara atxikitzen den auzo bakoitzeko, baldin eta ibilgailuaren titularra auzo horretako bizilaguna ez bada.



▶ PP Talde Politikoa
Grupo Político PP

Ijentea, 1 | Tel. 943481707 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián



Donostian, 2022ko abuztuaren 3an

Borja Corominas Fisas,
Udal Talde Popularreko bozeramailea